

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Iñigo Urkullu Renteria

Errenteria, 2020ko uztailaren 9a

Bat egiten dut sailburuaren dolumin hitzekin. Nire oroimena ere Euskadin koronabirusaren ondorioz hildako pertsonengatik. Pandemiaren kontrola eta zaintza da gure lehentasuna. Arriskuak jarraitzen du oraindik. Basurtun, Txagorritxun, Orion ikusi genuen. Orain, Ordizian ikusten ari gara. Osasun Sailaren eta Osakidetzaren erantzuna berehalakoa izan da eta izaten ari da. Hori da garrantzitsuena, Osakidetzak erakusten ari den erantzun ahalmena. Hori da eskertzen duguna eta mantendu behar duguna. Hori da, baita ere, euskal gizarteak aitortzen duena: berehalako erantzun profesionala. Eskerrik asko Nekane Murga sailburua, lan talde eta profesional guztiei. Momentu zail hauetan hamarretik zortziko balorazioa jaso duzue, benetan merezitakoa. Benetan eskertzekoa zuen ahalegina eta talde lana. Zorionak eta eskerrik asko!

Horrekin batera, beharrezkoa da norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna azpimarratzea: higiene-neurriak, gizarte-urruntzeak eta maskaren erabilera. Ezin dugu utzikerian erori. Nahiz eta okerrena pasa den, ADI jarraitu behar dugu. Gure konpromisoa da test masiboak egiten jarraitzea, agerraldi berriak azkar detektatzea eta foku berrietan kirurgikoki jardutea. Hortxe dago pandemiaren kontrolaren gakoa. Hori da gure kezka eta eguneroko lana. Ez dugu etsiko.

Osakidetzaren erantzuteko gaitasuna ez da kasualitatea izan. Euskadin, pertsona bakoitzeko 1.800 euro inbertitzen dugu osasun publikoan. Espainiako batez bestekoa baino heren bat gehiago. Euskadin osasun publikoa murrizketarik gabe bermatzeko konpromisoari eutsi diogu, baita une ekonomiko zailenetan ere. Mantendu egingo dugu osasun publikoarekin dugun konpromisoa. Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean konpromiso berriak aurkezten ditugu:

- Lehen mailako arreta indartzea. 400 profesional mediko berri prestatuko ditugu.
- Egunero 3.500 PCR test baino gehiago egiten jarraituko dugu.
- Osasun Zentro berriak irekiko ditugu: Gasteiz, Murgia; Zalla, Bilbao; Donostia, Aretxabaleta edo Ordizian.
- Osasun publikoaren legea onartuko dugu.
- Euskadiko Kluster biosanitarioa sustatuko dugu.
- Arreta integral soziosanitarioa hobetuko dugu. Gehiago hurbilduko dugu osasunaren eta adinekoen egoitzen arteko kudeaketa.

Osasun publikoarekiko konpromiso irmoa eta osoa dugu. Ziurgabetasunaren aurrean erantzun zehatzak eta ziurrak. Hau da Euzko Alderdi Jeltzalearen konpromisoa gure osasun publikoa indartzen jarraitzeko.

Me uno a las palabras de condolencia de la consejera por las más de 1.600 personas fallecidas a causa del coronavirus. El riesgo sigue estando presente. Hemos pasado lo peor. Ahora bien, tenemos que seguir enfrentando nuevos focos. Los hemos tenido en Basurto, Txagorritxu o en Orio. Hemos respondido con rapidez y agilidad. Ahora lo tenemos en Ordizia. Estamos respondiendo. El brote de Ordizia es un toque de atención serio. No podemos bajar la guardia. Es necesario insistir en la responsabilidad individual y colectiva para mantener las medidas de higiene, distanciamiento social y uso de mascarillas.

Es vital que sigamos adoptando estas medidas. No podemos caer en la dejadez. Es nuestra responsabilidad, lo mínimo que podemos hacer como miembros de una comunidad. Nuestro compromiso es continuar con la realización de test masivos de forma rápida y actuar quirúrgicamente sobre los nuevos focos.

Quiero agradecer la labor del Departamento de Salud, la Consejera Nekane Murga y todo su equipo de trabajo. Quiero agradecer la entrega de las y los profesionales sanitarios. Siempre alerta; vigilando, rastreando y siguiendo el virus. Osakidetza es nuestra mejor garantía. Así se ha visto a lo largo de esta crisis. Así lo reconoce la sociedad vasca con una valoración de 8 sobre 10. Hoy lo reitero: Osakidetza, zorionak eta eskerrik asko!

La capacidad de respuesta de Osakidetza no es una casualidad. Es reflejo de un gran trabajo: priorizando actuaciones, planificando, adoptando decisiones con eficacia, ejecutando inversiones. Es resultado de una gestión pública eficaz. En Euskadi hemos mantenido el compromiso para garantizar la sanidad pública sin recortes, incluso en los momentos económicos más difíciles. Lo vamos a seguir manteniendo. Hemos conseguido superar lo más difícil, pero tenemos que ser humildes. Nos hemos enfrentado, nos seguimos enfrentando, a una situación inédita y desconocida. Nos queda mucho camino por delante, mucho por hacer. Hoy, presentamos nuevos compromisos del Partido Nacionalista Vasco:

- Reforzar la atención primaria. Formar 400 nuevos profesionales médicos de atención primaria y ampliar la plantilla de especialistas en enfermería familiar y comunitaria.
- Continuar realizando más de 3.500 test PCR diariamente
- Nuevos Centros de salud en Gasteiz, Murgia; Zalla, Bilbao; Aretxabaleta, Ordizia y Donostia.
- Aprobar la Ley de salud pública de Euskadi.
- Impulsar el Cluster Biosanitario. Trabajar juntos para responder mejor a las necesidades de equipos de protección y tratamientos sanitarios.
- Mejorar la atención sociosanitaria. Acercar más la gestión entre salud y las residencias. Poner en marcha la historia electrónica y la atención primaria sociosanitaria.

Esta es nuestra respuesta... Un compromiso firme con la sanidad pública. Ante la incertidumbre, respuestas certeras, seguridad y confianza. Compromiso Partido Nacionalista Vasco.